

OGI TXIGOR PRESTATZAILEA

BALIO PROPOSAMENA



BALIO PROPOSAMENA

- Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Ogi txigor prestatzaileari esker, egunerokotasunean bakoitzaren denbora aurreztea lortuko da. Horrela, denborari probetxua aterako ahal izango da, minutu gutxitan, gosaria mahai gainean izanda. Gainera, mahai-tresnak eta mahaia garbi mantenduko dira. Horri esker, beste lan bat saihestuko da (mahai-tresnak garbitzearena). Horretaz gain, bakoitzak bere gustuko programa bat izan dezake. Ogi txigortuari igurtziko zaion produktua aukeratuz eta ogiaren txigor maila aukeratuz. Bestalde, produktuek armairuan ez dute lekua okupatuko makinan bertan gordeta egongo direlako. Produktu hauen irautze data luzeagoa izango zen, kapsuletan beharrezkoa bakarrik egongo delako, beraz ez da soberan geratuko produkturik eta ondorioz ez dira iraungiko produktuak. Gainera, teknologian izugarritzko aurrerapena izango zen, gaur egun existitzen diren baina salmentan ez dauden Robot horien antzerakoa izango delako. Behin programatuta, makinak berak egiten duelako ogi txigorra pertsona fisiko baten laguntza gabe.

- Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure produktuak merkatuan arrakasta izango duela uste dugu, orain arte ezagutzen dugun itxura bereko produktuak baino hobea delako eta lortu genezakeenaz pauso bat aurrera joaten delako.

Esklusibotasuna izango da gure ideia edo proiektuaren beste berezitasunetako bat. Orain arte ez delako horrelako txigorgailurik sortu. Ez duelako ogia txigortzen soilik. Baizik eta, ogia txigortu eta nahi dugun produktua igurtzi.

Nespresso motako kafe makinaren egoerarekin aldaratu dugu, gure ideia. Idieia, kafe makina guztiak baino aurreratuagoa da, kapsulak erabiltzen ditu eta kafea modu errazago batean lortzen da (azkarrago, esfortzurik egin gabe...). Beraz, Nespresso motako kafe makinak, nahiz eta beste kafe makina batzuk merkeagoak izan, jendeak makina hauek erosten ditu, onura gehiago dituelako.

Nespresso motako kafe makinak oinarritzat hartuz, ogi txigortuarekin antzerako proiektu bat sortzea erabaki genuen, bertan kapsuletatik ogi txigortuaren gainean igurtziko den produktua erortzen da eta makinak berak prestatzen du ogi txigortua. Honetaz gain, pauso bat aurrera egin dugu, ogi txigor prestatzaile honetan, bakoitzak bere programa izateko aukera izango du (ogia zenbat denboraz txigortu, zein produktu igurtzi...).